

ARGIAk 90 urte

Lurrikara Victoria Eugenia



Seisinoa inguru osoan sentitu zen. Adituen ustez baldintza guztiak eman ziren horretarako: 800 laguneko aforoa, eszenatoki paregabea eta bertsoarako giro ederra. Bat baino gehiago sustoa gorputzean zuela atera zen gertaera jazo zen gunetik.

URKO APAOLAZA

Argazia: Miren Segurajauregi

IKUSKIZUNAK RITCHER ESKALAN neurtuko bagenitu, joan den larunbatean zazpi graduako lurrikara izan zen Donostian. Victoria Eugenia epizentroa. Aieneak eta ikara garrasiak horren testigu. Izan ere, holako bertso saiorik... Sei lagun pikaro eta hiru musikari aritu ziren erreplika etengabe, entzuleei tripako minak jaritzen eta bihotzak hunkitzen. 90 urte ospatzeko 90 minutu urrezko.

Lehen astinaldia

Atzera begiratzea izan zen lehenengo. ARGIA astekariko azal bana jarri eta titularra berregitea egokitu zitzaion bertsolariari, hasi Aita Santua azaldu zen lehen aletik –ai! nola aldatu diren gauzak...– eta bukatu ezkerrei buruzko portadarekin. Payak sugeritu zuen ezkerrentzako aldizkaria kaleratzea –kontuan izango dugu, Paya–.

Egañari, barkatu, Patxi Lopezi, deabru txiki batzuk sortu zitzaizkion gorputzaren bueltan. Arzallusek, Colinak eta Alberdik ongi erakutsi zuten Argiako orriotan hartutako eskarmentua: *Zer moduz ari zera / euskara ikasten?* Galdetu zion aurrenak lehendakariari; *Kondoirik jarfen al dezū / Basagoitirekin?*, bigarrenak; *Ezagutzen al dezū / Andoni Egaña?* hirugarrenak. Hara Lopezen erantzuna: *Ez dankat kultururik / hortako adina.*

Eta seisinoa handitzen. Eñaut Agirre kantariak, Imanol Kamio eta Aitor Atxega musikariek lagunduta, Argiako atzoko eta gaurko bertso jarriak berreskuratu zituen, gertaera zirrargarriak gomutatuz eta hausnarketarako bide eginez. Erritmo, melodia eta letren koktel paregabea, *swing* eta guzti.

Andoni Egaña,
Xabier Paya,
Sustrai Colina,
Ametz Arzallus
eta Uxue
Alberdi aritu
ziren bertsoan.
Eñaut Agirre
kantari eta
Aitor Atxega
eta Imanol
Kamio musika
joaz.

Bigarren astinaldia: Uztapideren piztuera

“Zarauzko Antonio bat” badela txapelaren errekorra kendu diona-eta, Uztapide desafioka etorri zitzaion, behinola ARGIAko beste bertso saio batean galdutako ahotsa Amets Arzallusen zintzurarekin berreskuraturik. Ahotsa galdu zue-nean orduko gazteak poztu ote ziren galdetu zion Egañak balkoi batetik maisu handiari, eta honek bestetik erantzun oraingoak ere poztuko lirakeela berari infartu batek emanez gero. Victoria Eugenia dardarka.

Colina eta Alberdi Muruarekin ligatzera bidali zituen Estitxu Eizagirre gai-jartzaileak: *Estitxu ez al daukazu / holako gai gehio?* bukatu zuen esaten Muruak, bere bi lagun seduzitzeko manerak ikusita. Bat batean, argia joan eta publikotik garrasi lazgarria entzun zen, lurrikarak intentsitate handinez astindu zuen antzokia orduan. Xabier Paya, barkatu, Sherlock Holmes, eta Andoni Egaña, barkatu, Watson, krimena ikertzera joan ziren eserlekuetara. Jendea interrogatu eta katxeatu ere egin zuen detektibe pareak, baina ezer garbirik atera ez, Payak agintzen zuela baino: *Utzi niri aurre-rago / jefe bat eginda nago...* zioen gure Holmesek.

Holaxe bukatu zen ARGIAren 90. urteurrena ospatzeko bertso saioa, publikoaren txalo zaparrada eta bertsolarien agurrarekin. Komunitate txikia, zapaltzen dugun lurra astintzeko kapaz. Uxue Alberdik arrazoi:

*Argia hemen bertan daukagu
eta zertan joan harago
nuklearrikan ez degu behar
energia hemen dago. ■*